



Iazko jaialdiko kontzertu bat, Hernaniko karpan. *argurrotik*

sagardoaren kultura

sagarrondotik 06 | buruntzaldea

Badator. Musika, kirola, eskulangintza azoka, jakiak, edaria... Festa eta kultura eskutik helduta datoz beste behin Buruntzaldeko herrietara. Hemen da Sagarrondotik 06. Iaz bezain indartsu, iaz bezain erakargarri.

Asteburu osoa hartuko du Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartek antolatzen duen jaialdiak. Sagardoa kultura dela jakitun izanik, horren inguruan kultura eskaintza zabalagoa egiteko helburua hartu zuten elkartekoei, eta halaxe sortu zen Sagarrondotik.

Egitarauan sona handiena izango duen ekitaldia kontzertuena da. Ostiralean eta larunbatean izango dira, eta talde ezagunak arituko dira, ordubate pasatxo bakoitza, euren lanak erakusten. Ostiralean, THC, Sorkun, Chambao, Loquillo y los trogloditas eta Pal Keli (O' Funkilloren oinordekoak) taldeek jardungo dute. Larunbatean, Morodo & Ranking soldiers, Berri Txarrak, Celtas Cortos, Hamlet eta Betagarri arituko dira. Kontzer-

tuak 22:00etan hasiko dira, urtero jarri ohi duten karpa erraldoian. Beraz, Euskal Herriko eta nazioarteko taldeekin gozatzeko aukera ederra izango da Hernanin. Karparen inguruan beste leku estali bat jarriko dute, sagardoa upeletik edateko eta jateko aukera eskaintzeko. Halakorik jarriko duten lehenengo aldia da; 20:00etan zabalduko dute ostiralean eta larunbatean.

Kontzertuetarako sarrerak salgai daude gaur arte Hernaniko alde zaharreko taberna gehienetan eta Euskal Herriko beste herri batzuetan (www.sagarrondotik.com webgunean ikus daiteke herrien zerrenda). Egun bateko sarrera, aldeaz aurretik erosita, 21 eurotan dago, eta, bestela, lehiatilan 24 eurotan. Bi egunetarako bonoak 36 euro balio du.

Urnietan, beste era bateko ikuskizunak izango dira igandean, Sagardo Egunean. Goizetik hasita, Urnietako bost sagardotegietako salda dastatzeko aukera egongo da, eta edariari laguntzeko, txekor jana eguerdi alderako.

Hirugarrenengo aldiz, lehiak ere tartea izango du asteburuko ekitaldien artean, aurreko urteetako

protagonista berberekin. Urnietan, Hernanin, Usurbil eta Astigarraga herriek osatutako 17-18 neska-mutilletako taldeek elkarren artean neurtu beharko dituzte indarrak, zortzi probetan: ingude proban, harri-jasotzen, giza proban, txingetan, zaku lasterketan, lokotx biltetan, sokatiran eta kizkiarekin sagar biltzen. Urnietarrei, iazko txapeldunei, lehen postua kentzeko lana hartuko dute gainerakoek, hamaiketan hasita.

Hori guztia egun baterako gutxi ez eta, lehen aldiz, Buruntzaldeko eskulangintza azoka antolatu dute. Hamabost bat postutan egur taila, harrizko artelanak, marketeria, zeramikako artelanak... ikusi eta erosteko parada izango da. Eta, horrekin guztiarekin batera, kale animazioa, dultzainak eta musikariak ibiliko dira kaleetan.

Beraz, asteburua kultur ekitaldiz bete eta eskaini dute antolatzaileek, beste urteetan adinako erantzuna jasotzeko asmotan. Aurrelanak eginda daude. Orain ondo pasatzea falta da. Kulturaz gozatzeko modu bat da. **kepa urbieta**

**Eskulangintza
azoka
antolatu dute
lehenengo
aldiz**

non zer

Ostirala

22:00: Kontzertuak: THC, Sorkun, Chambao, Loquillo y los trogloditas eta Pal Keli.

Larunbata

22:00: Kontzertuak: Morodo & Ranking Soldiers, Berri Txarrak, Celtas Cortos, Hamlet eta Betagarri.

Igandea

10:00: Urnietan, sagardo dastaketa eta eskulangintza azoka.

11:00: Herri kirolak. Urnietan, Astigarraga, Hernanin eta Usurbilgo taldeak elkarren aurka arituko dira. Egin beharreko lanak: ingude proba, harri-jasotzea, giza proba, txingak, zaku lasterketa, lokotx bilteta, sokatira eta kizkiarekin sagar biltzea.

Eguerdian: txekor jana.

Egunean zehar: kale animazio, dultzainak eta musika.



gpsa

